

Urraduraren kantua

Alex Gurrutxaga

Poetak ahots propioa izatea ez da gauza zaila: nor bere boza dauka. Zaila dena da beratu esanguratsua eta interesgarria izatea. Ba halakoxea da Tere Irastortzaren ahots poetikoa. *Mundua betetzen zenuten* argitaratu du, eta ez du maila literarioan huts egin.

Muin-muineko batasuna dauka liburua, poema guztiak baitaude alde edo molde heriotzaren gaiari lotuta. *Izendaezinaz* saiakeran (2008) diagnostikoa eman zigun Irastortzak; honelaxe idatzi zuen *Hiltzeko beldurra* atalean: «Baina gizarteak, indibidualtasun eta utilitarismoan funtsatuz, erabateko bakardadean, biluzik utzi du gizakia, berriz. Jainkorik ezean, eta alde aurretik Jainkoaren izenean gizartea, talde gisara, desager arazi ondoren, noraeza da, presente egiten dena: hiltzeko beldurra eta bizitzen asmatu ezinarena».

Hiltzeko beldurra eta bizitzen asmatu ezina, heriotzaren haus-tura, hilek uzten duten hustasuna eta bizidunaren noraeza: horriek dira poemategi honen gaiak. Dena agertzen zaigu gal-



'Mundua betetzen zenuten'

Idazlea: Tere Irastorta.
Argitaletxea: Pamiela.

kor; *tempus fugit*, esango genuke topikoarekin, edo *vulnerant omnes*; eta Irastortzak: «jendeak zitudin/ ale hutsa/ lur-azalean alferrik galtzen».

Urraduraren kantua da *Mundua betetzen zenuten*, seguru asko latzagoa eta aldi berean indartsuagoa lehen erdian. Gero ez hain zaugarria, eta neurri batean baita intentsitatez itzailagoa ere. Edonola ere, tragikotasunik gabe behatzen du poetak bizitzaren eta heriotzaren arteko muga absolutua, zorianaren eta galaren banaezintasuna. Eta behar bada seriotasun orekatu horretatik sortzen da poemen efektu gordina. Batetik, ohiko bizimoduaren elementuak daude: arropak tolestu, ogitarako txanponak kontatu, bankutik dirua atera, pasta egosi; egunero jarraitzea, hastea goizero berriz. Eta, bestetik, heriotzaren muga absolutua dago, betiko uztea mundua beteazari.

Adiskideei, familiakoei, hilei mintzo zaie poeta. Eta galdetzen dio bere buruari, adibidez, «orain hemen ez hagoenez / de-nean ote hagoen». Argazkiak ferrekatzen ditugu, eta nahi genuke argazkietan daudenek fereka gintzaten. Baina bada kontsolamendurik; pentsatzen dugu «zitekeenak eta izan zenak / bat egin

zutela aldi batean behintzat». Eta, batez ere, edertasuna gertzen zaigu aringarri, poetak esan zuen bezala, edertasunaren neurri bakarrean finkatuta bizi behar baitugu.

Poesia fragmentarioa da Irastortzarena, inoiz iluna eta kriptikoa. Badaude poema narratiboak ere, baina ez da hori joera orokorra. Poesia geldia eta estatikoa da gehienetan; irudi bat, momentu bat, sentipen bat izaten da poemaren zutarrak. Gaiaren batasunari poemen arteko harreman eta keinu anitzak gehitzen zaizkie, eta heriotzaren kantari handiei han-hemenkako erreferentzia ttipiren bat ere badago: Tsvietaieva, Rilke edo Szymborska, adibidez. Metrikoki librea da Irastortzaren poesia, eta esaldia eta hitza dira, oro har, erritmoa markatzen dutenak. Nabaria da maiz hitz bakoitzaren pisua.

Ez zaio, mila modutara izendatu arren, heriotzari izena gasta-tzen. Dena desagertzen da mundutik, heriotza salbu. Baina inperatibo bat bizitzea, eta argitsua da Irastortzaren poemategiaren amaiera. «Dena nerekin da orain», baieztatzen du: mundua betetzen zutenen eta mundua berritzen duzenen arteko katean hartzen du zentzua gure bizitzak.



'Betiko atzo?'

Idazlea: Leire Arano. Ilustratzailea: Belen Lucas. Argitaletxea: Ibaizabal.

Peru Abarko album lehiaketa-ren bi irabazleen lanak uzartzen ditu irakurle helduentzako argitaratutako album ilustratua honak: Leire Aranok idatzitako narrazioa eta Belen Lucasek egindako ilustrazioak. Ispiluan bere burua ezagutzen ez duen pertsonaia baten gorabeherak ditu kontagai.



'Harat-honat. Jonki baten trajeria'

Egilea: Gerardo Mungia Pintxe.
Argitaletxea: Txalaparta.

Pastoral gisa idatzitako liburu honak «Euskal Herrian bizi izan den historiazko aro bat» du kontagai, egileak dioenez. «Zübe-roako pastoralara hartzu dut ardatz. (...) Laurden bat bederen historia izanen duzu, zinez. Haurren, langile gazteen, bidaien, amodio eta sexoen, alkohol eta drogen, oina-zeen istorioak. Herioa barne».



'Espainak arrainak bezala'

Idazlea: Karlos Gorriñdo.
Argitaletxea: Erein.

Marta eta Gorka dira nobela honetako protagonistak. Bikote afektiboa osatzen dute. Baina, ezin jakin zergatik, harremana hoztu egin da. Sentimenduek maiteminetik maitasunera urrats bat egin dute, eta maitasunetik, denboraren poderioz, desamodiora.

Patioko jolasak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Aurtengo Mikel Zarate sariketako irabazlea izateak ematen dion itzalarekin iritsi zaigu plazara obra hau. Egia esan aspaldion daukagun langa ez da oso altua haur literaturaren narratibari dagokionez, eta adibide bat jartzearen, parte hartzen dudana irakurle klubeko iritzien arabera, sariketa honetako aurreko bost irabazleetatik batek ere ez zuen balekoa izatearen langa baino gaitundia. Obra bikainik ez, beraz, haurren euskal letretan, aspaldion.

Gai interesgarria proposatzen du lan honak: eskoletako patioetan futbolak hartzen duen gehiegizko lekuak beste jolasetarako espazio falta eragiten duela, eta

horrek hainbat jolas eta izate bazterretara eramaten dituela, bereziki indar fisikoarekin iriztea atsegin ez duten haurrak.



'Patioan'

Idazlea: Arrate Egaña.
Ilustratzailea: Amaia Arrazola.
Argitaletxea: Elkar.

Ez dut azalduko hemen zer den futbola, nahi duenak badaki.

Protagonista Malen da, gurasoekin eta aitonaarekin bizi den neskato saiaturia. Istorioa abiatzen da Malenek erabakitzen duenean patioaren erdian jarriko dela, jolas orduetan. Futbole-an ari direnek hartzen dute patioaren luze zabal osoa, eta, pentsatzekoa den bezala, oso gaizki hartzen dute Malenen jarrera. Irainka eta joka ibiltzen dute Malen, egun bat bai eta hurrengo ere bai. Irakasleek ez dute Malen babesten, aitzitik, haurra mehatxatu eta zigortu ere egingo dute; pentsa, halako batean ikuskatzailea etorriko da, eta honak ere legearekin mehatxatuko du!

Hamasei ataletan banatuta dago, baina atalen etenak ez dira ia nabaritzen. Ia amaieraraino mantenduko da Malenen joka-bidea eta inguruko mespretxua, eta azken hiru orrialdetan, ez si eta ez no, dena konpondu egingo da. Testu osoan zehar ez da inor nekatzen argudiatzen, ez Malenen jarrera gaitzesteko, are gutxiago defenditzeko. Dena «eta zuk gehiago» inozo batez

konpontzen da, helduak zigorrek mehatxatzen, haurrak kolpeak eta irainak banatzen.

Pena ezta? Ez dut uste hau irakurtzen duen haurrak merezi duenik pentsatzea helduak mehatxuka eta argudiatu gabe aritzen garela, eta ez dugula, bide batez, patioetan beste jolasik nahi. Bai, eskola eskotan hitz egin da halako egoerez, irakasle asko inplikatu dira halakorik gerta ez dadin, eta merezi zuten euren lanagatik saritzea, sikiera egindako ahaleginen adibideak jarrita.

Sikiera egoera hau hobetu izan balu ilustrazioak! Tamalez, Arrazolaren lanean helduekin ikusi ohi zaion irudi estiloa mantentzen du, baina bihurrikeria guztiak kenduta.

Errematerako testuari orrazketa falta zaiola dirudi, liburuiko lehen paragrafoa gramatika akats batekin hastea ez baita abiapuntu desiragarria, eta are makurragoa da edizio akats batek desitxuratu egiten duela testua goitik behera, hitz arteko «!» xehea «!» larriarekin ordezkatua agertzen da-eta temati liburu osoan zehar...